

Ordena ostalariak

dun teutonikoak, S. Jakueren ordena, Alkantara-ko ordena.

Ordena ostalariak

XI. mendearen azken aldean sortu zen Jerusalengo S. Joan ostatuko Zaldunak ordena, *Lurralde Santura zihoazen erromesei ostatua emateko. Haien arabera Erdi Aroan Europako beste lekuetan erromes, pobre eta gaixoen ardura hartzeko eginkizunarekin sorturiko *erlijioso-institutuei eman zieten ordena ostalariaren izena.

Ordenazioa

Erlijiozko hizkeran ordena kontzeptua erabili ohi da orokorki monakotzari edo komentu-bizierako organizazioari begira. *Budismoa bere funts-funtsean erlijio monakala da, ordena budistan edo *sangha-n gauzatzen bait da budismoaren erlijiozko esperientzia benetakoa eta osoa. Sangha-ra edo monakoan ordenara sartzeari deritza, hain zuzen, ordenazioa budismoan.

Erljio ordenadunak badira, ordea, beste batzuk ere: *Jainismoa, *daoismoa; horietan, hala ere, ordena ez da erlijioaren funtsa, fededun batzuren hautapena baino. Monakoan organizazioek edo ordenek beren leku nagusia dute kristautasunaren historian ere, ekialdean eta bereziki mendebaldean. Gaur egun, Zuzenbide Kanonikoaren arabera, ordenaren kategoria egozten zaio Eliza Katolikoan erlijioaren hainbat erakunderi, kongregazioetatik edo institutu sekularretatik bereiziz. Ik. Erljioso-ordena; Erljioso-kongregazioa.

Era espezifikoz, *ministeritzari dago atxekirik ordena kontzeptua kristautasunean, eta halako mailatako edo gradutako ministeritzaren baterako norbait sagaratzeari deritza ordenazioa: horren bidez ematen diote ordenagaiari Elizan bete behar duen ministeritzarako eskumena eta agintea. Ordena sakratuen kontzeptua Eliz *hierarkiari (=aginte sakratuari) hertsiki loturik dago, beraz, ministeritzari berari baino lehenago, Elizan hainbat ministeritza bait dago, ordenazioko errito berezitan oinarritzen ez denik.

Bestelako erlijioetako "hierarkiara" sartzea ere nolabaiteko ordenazioren bidez egiten dute. Kristau-Elizek --ez protestanteek-- *sakramentutzat hartzen dute ordenazioa: Eliz hierarkia oinarritzen eta eraikitzen duen sakramentua, hain zuzen. Sakramentu bakarra da, nahiz eta gradu ezberdinetan banaturik egon, hierarkiako gradu ezberdinen arabera.

Eliza Katolikoak hiru ordena hierarkiko nagusi hauek bereizten ditu, hirurak ordena-sakramentutzat hartzen dituenak: apezpi-

kutza, presbiterotza eta diakonotza. Kontsakrazioa edo *apezpikugintza da ordenazioren bete; apaizgintza eta diakonogintza, berriz, sakramentuan neurri bateko parte hartzea dira, apezpikutzatik daudenak. Hortik beherako "ordena txikiak", Elizan horrela izendatu izan dituztenak, ez dituzte sakramentutzat hartzen: hala nola, subdiakonotza, akolikotza, araolaritza, irakurlegoa, ate-zaintza. Gaur egun, akolitotza eta irakurletza bakarrik gelditu dira indarrean Eliza Katolikoaren liturgiari.

Ordenazio-erritua funtsean ordenagaiari eskuak ezartzea datza, horren gain ordenatzaileak otoiñza egiten duen bitartean. Sakramentuak *marka irartzen omen du ordenatuarengan. Apezpikua izan ohi da ordenatzaile kristau-elizetan: bai beste apezpikuren batena eta gaur egun apaizarena eta diakonoarena ere bai. Eukaristiaren ospakuntzaren barruan egin ohi dute ordenazioren erritua.

Erromatar Eliza Katolikoak eta Eliza Ortodoxoak baliozkotzat ezagutzen dituzte batean nahiz bestean harturiko ordenazioak. Eliza anglikanoaren ordenazioak, berriz, arazo tekniko, ez dogmatikoarengatik, Eliza Katolikoak ez ditu baliozkotzat ematen. Dena dela, puntu hori argitzea eta konpontzeko ere aurrera doaz bi Elizen arteko elkarrizketak.

Ik. Apezpikua; Apaiza; Presbiteroa; Diakonoa; Subdiakonoa; Akolitua; Irakurlea; Monakoa; Artzaingintza.

Paulo Agirrebaltzategi

Ordezpena

1. Magia zuri edo *babes-magiaren baliabidea da: norbait gaitzetik ateratzeko, besteren bati (animaliari nahiz gizakiari edo gauzari) egozten zaio *bekatuaren edo gaitzaren ondorioa; horrela ordezko hori bihurtzen da gaitzaren irozka, eta Jainkoari nahiz deabruari oparitza eskaintzen diote edota desegin egiten dute, irozkaia gauzaren bat bada.

2. Kristoren gurutzeko heriotza ere ordezpen gisa ulertzen du teologiak: Hark bere gain hartu omen zituen gizadiaren bekatuak.

Juduen artean esanahi bera zuen *Yom Kippur eguneko *akerrak; horren gain botatzen zituzten herriaren bekatuak.

Ordinarioa

Jurisdikziozko eskumen berekia kanpo-barrutian duenari ematen zaio izen hori Eliza Katolikoan; ordinarioak dira aita santua, apezpiku diozesidun edo egoitzadunak, abatak, administrari apostolikoak, bikario eta prefektu apostolikoak, eta horien ordezkoak.